

Hitza zaintzaile



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



PAULA ESTÉVEZ

2022. urte atari honetan, opari prezagarría eragin digute Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak; Euskal Editoreen Elkarteak; Euskal Idazleen Elkarteak eta Galtzagorri Elkarteak, Hitzak Zaindari ekimena abiaraziz. “Euskal literaturaren hitzen zaintza aldarrikatzeko”, bereziki, *Hitzak Zaindari* liburuttoa digute eskaini, hogei testu bihotz-goxagarritz josia.

Egiaz, zauriturik bukatu dugu 2021. urtea gehien-gehienok, sinetsi gabe gure oinazeak leunduko direla 2022. ean. COVID-19ak eragin tentsio izugarriak Estatuaren artean, eremu publikoan, politikan, lanean, lagunartean, familietan eta bakoitzaren baitan areagotu dituzte lehenago sortu larrialdiak, hauek aldaketa klimatikoaren kontzientziak edo muga ekonomiko-politikoak bultzatuak. Testuinguru horretan, diskriminazio eta bortizkeria erak biderkatu eta indartu dira, denen bistara, eta belaunaldi guzietako jendea gero eta bakartiagoa, gero eta galduagoa, gero eta etsituagoa sumatzen dut ene inguruan. Kaos sakon hori elikatzen du berehalako albisteei buruz dugun adikzioak, ez gaituelako hatsa eta gibelapea hartzera uzten, bahitzen digulako

hausnartzeko gaitasuna, eta ondorioz baikortasunez aitzinatzen ahalbidea.

Zenbaitzuek beren izate zauritua artatzen dute erremedio antidepressiboak edo gobernatzaileen gezur absurdoak irentsiz, birtualtasunaren eta teknologiaren ahalmen magikoetan ezarritik esperantza; eta ez nitzake presuna horiek gaitzetsiko, gogorregia izan daitekeelako konfiantza arrunt galtzea bote-rean direnek zabaldu ameskerietan, eta sistema osoa usteltzear ikustea. Beste batzuek beren burua babesteko dute engaiamendu sozial edo militantzia politikoaren bidez. Besteek berriz, artea, musika edo hitzaren bidez zainduko dute beren barne-oreka eta beren hurkoa. Hori dut nik biderik gustukoena aurrera jotzeko, nahiz eta menturaz bide itsua izan daitekeen.

Liburuekin, alabaina, zure burua behartzen duzu gelditzera eta une batez birzentratzera, zurrumbilo nahasieta-tik at. Luxuzko momentuak izaten dira horiek: estoka sozialaren presiopetik mirakuluz libratzen zara, eta orduan, zorionezko astia har dezakezu biziraupen zentzudun bati pentsatzeko. Horrelako denboraldi estimatua iragan nuen *Hitzak Zaindari* irakurtzean, eta orainda-

nik gozaten ditut beste batzuk, ondoko egunetan leituko edo berriz leituko ditudan obrekin. Izendatuko dizkizut hemen, irakurle. Ipuin batzuk, Xan Idiarren *Teresaren Mendekua*, berritasuna dastatzeko. Oier Guillanen *VHS*, literaturaren mugetaraino joateko. Fernand Pouillon arkitekto eta preso ohiaren *Les Pierres Sauvages* eleberria, segurtatzeko sorkuntza fede egintza dela, oroz gainerik. Poesia ere bai: Elizabeth Bishop-en *North and South*, eta Leire Bilbaoren *Etxeko urak*, kontsolamendu eta itxaropen hartzeko. Aski bizkortu-eta, filosofia: Ander Berrojalbiz, Séverine Denieul eta Javier Rodríguez Hídalgoaren *Les avant-derniers jours de l'humanité*, {L'Autre Côté} argitaletxe independenteak plazaraturiko liburuño argia, bizi dugun desastre demokratikoa. Eta bukatzeko, Mohamed Mbougar Sarr senegaldarraren azken eleberria, *La plus secrète histoire des hommes*, Goncourt sari ezaguna irabazi berri duena, afrikar frankofono gazte horrek gizaki bihotza nola ikusten duen sentitzeko eta Afrikaren kolonizazioa nola birpentsatu duen jakiteko. Urte hastapen honetan, beste agiantzarik ez dut: Hitza zaintzaile izan bekigu, literatura zale guziosi! ●